

Aldez aurretiko jendaurreko kontsulta, entzunaldia eta informazioa, ordenantzak eta aratuegiak prestatzeko eta aldatzeko prozeduran

Herritarrek aratuegiak atontzeko prozeduran parte hartuko dabela ziurtatu guran, eta Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkidearen ganeko urriaren 1eko 39/2015 Legeak bere 133. artikuluan ezarritakoaren arabera, araua prestatu baino lehen, aldez aurretiko jendaurreko kontsulta egin beharra dago herritarren eretxia eta arauak ikututako erakunderik garrantzitsuenen eretxia batzeko hainbat alderdiren ganean, esate baterako ekimenaren bitartez konpondu gura diran arazoak, onarpenaren premia eta aukerea, arauaren helburua eta urtenbide alternatibo erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

2017ko bagileko bilkuran, Larrabetzuko Udalak aldez aurretiko jendaurreko kontsulta, entzunaldi eta informaziorako gidalerroak onartu eban udal arauak prestatzeko prozedurearen barruan.

Horren guztiaren ondorioz, 2018rako zerga ordenantzak aldarazoteko eta eguneratzeko proiektuaren prestaketea aldez aurreko kontsulta publikoaren pean imintzen dogu.

Egutegia honakoa izango da:

Irailaren 22ra arte kontsulta epea zabalik egongo da eta memoriaren ganeko eretxiak edo ekarpenak udaletxera ekarri ahalko dira erakundera etorritik, egoitza elektronikoa erabiliz edo udala@larrabetzu.eus helbidera e-mail bidez bialduz.

- Irailaren 26tik urriaren 6ra webgunean argitaratuko da 2018rako zerga ordenantzak aldatzeko aurreproiektua. Herritarrei entzunaldia emateko eta eretxiak batzeko. Horreek udaletxera ekarri ahalko dira erakundera etorritik, egoitza elektronikoa erabiliz edo udala@larrabetzu.eus helbidera e-mail bidez bialduz.
- Urriaren 18ko Ogasun Batzordean testua aurkeztuko da haren ganean eztabaidatzeko.
- Urriaren 25eko bilkuran 2018rako zerga ordenantza barriak onartuko dira.
- Zemendian BAOan argitaratuko dira, jendaurrean egoteko.
- Abenduan behin betiko onarpena argitaratuko da.

2018. URTERAKO, ZERGA ORDENANTZAK ETA PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZAK ALDATZEKO MEMORIA

- **Konpondu beharreko arazoak**

Larrabetzuko Udalaren udal gobernuak 2018rako zerga ordenantza batzuk eguneratzeko asmoa dauka (zergak, tasak eta prezio publikoak arautzen dauen ordenantzak), eta horrek aldarazpenak ekarriko dauz, behar adina sarrera izango dirala ziurtatzeko eta, halan, erakundearen eskumenak bete ahal izateko. Tributuen helburu nagusia da beharrezko diru sarrerak lortzea, udalaren eskumenekoak diran gastuei eta zerbitzu publikoei eusteko. Horretarako, sistema gidatu behar dauen printzipio bat dago, hau da, zergak ordaintzeko benetako gaitasun handiagoa daukanak gehiago ordaintzea. Larrabetzuko Udalak, erreferentziatzko legeriak ahalbidetzen deutson neurrian, printzipio hori aplikatuko dau zuzenekoak diran zerga tributuetan, tributuoak personen gaitasun ekonomikoaren zuzeneko edo berehalako agerbide bat zamatzen dabelako, barbarako ondasun baten jaubetzea edo errenta baten lorpena. Udal eremuan zuzeneko tributuoak honakoak dira: ondasun higiezinaren ganeko zergea, jarduera ekonomikoaren ganeko zergea, trankizino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergea eta uri lurren balioaren gehikuntzearen ganeko zergea. Zentzu honetan, erreferentziatzko legezko markoak ahalbidetzen deutson neurrian, Larrabetzuko Udalak zuzeneko tributuetan kenkari, hobari edo eransketen araubidea ezarriko dau, personen gaitasunari erreparatuz eta kasu bakoitzean lortu gura dauzen printzipio eta helburuak kontuan hartuz. Era berean, zerbitzu publikoen ganeko zerga ordenantzak be eguneratuko dira.

gaur egun, zerga ordenantzetan araututako diru sarrerak, batez be zergak, tasak eta prezio publikoak Larrabetzuko Udalaren diru sarrera guztien %35 inguru dira. Sarrerak batez be Udal Finantzazinoaren Foru Funtsetik datoz (Udalkutxa), horixe da-eta Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako tresnea, udalek euren eskumenei jagokezan betebeharrei aurre egiteko behar beste finantza baliabide euki daiezan.

Beste alde batetik, udal eskumeneko zerbitzu publikoen gastu eta kostuen zenbatekoa handitzen da ekoizpenari eta ezarpenari hainbat faktorek eragiten deuselako (lan kostuak, kostu materialak...); horrek urterik urte eguneratzen dira udalak ordaindu beharreko azken prezioa areagotuz. Hori dala eta, gure zerga ordenantzetan eta prezio publikoen ordenantzatan aldarazpen txikiak sartu behar dira, udalerrian sortutako gastuen ordainketea bermatzeko eta zerbitzu publikoen prestazio zuzena ziurtatzeko, halan sarreren eta gastuen kontuaren orekeari eustea lortuz.



LARRABETZU
UDALA
AYUNTAMIENTO DE
LARRABETZU

- **Premina eta aukerea**

Aldarazpenaren behin-behineko onarpena urriko bilkuran planteatu beharra dago, 2018ko urtarrilaren batean indarrean sartu daiten, behin hogeita hamarreko jendaurreko epearen ondoren, interesdunek espedientea aztertu daien eta egokitzat jotzen dabezan erreklamazioak aurkeztu daiezan.

Ganera, hilabete horretarako udalaren sarrera eta gastuen egoerearen hurrerapena eukiko dogu; halanda ze, udal preminen irudi fidagarriagoa planteatu beharko da zergen arloan.

Ganera, zergen arloko eztabaidan sartu beharra dago herritarrek Txorierriko herri desbardinetan jasaten daben zerga presinoaren ganeko gaia. Ez dauka zentzunik personak bizi diran udalerrriaren arabera euro mordo gehiago ordaindu beharra kontzeptu eta zerbitzu bardinen truke. Oro har, gure udalerriko zergak, tasak eta prezio publikoak gure inguruko udalerrietakoak baino dezente txikiagoak dira, eta, beharbada, komenigarria izan daiteke bardintzera jotea, zerbitzu publiko hobeak eta ugariagoak eskaintzeko oinarriak ezarriz.

- **Arauaren helburua**

Ordenantzearen ganeko jarduketa honen helburua da zergak, tasak eta udal prezio publikoak eguneratzea.

- **Urtenbide alternatiboak**

Toki Erakundeen Ogasuna osotzen daberen baliabideak honakoak dira:

- a) Ondaretik jatorrizkoan sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerakoak.
- b) Zergetan, tasetan eta kontribuzio berezietan sailkatutako tributuak, bai eta Toki Ogasunaren alde oinarri edo kuoten ganean lege eskatu daitezkean errekarguak be.
- c) Zerga itunduetan, ez-itunduetan izandako partaidetzak eta gainerako sarrera publikoak.
- d) Diru-laguntzak.
- e) Prezio publikoen kontzeptuan jasotakoak.
- f) Kreditu eragiketen emoia.
- g) Isunen eta zigorren emoia udalaren eskumenen eremuan.
- h) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

Larrabetzuko Udalaren ogasuna Udalkutxa bidez itundutako tributuetan izandako partaidetzeak osotzen dau gehienbat, bai eta tributu propioek eta, neurri txikiagoan, diru-laguntzek eta prezio publikoek be.

Gaur egun, indarrean dagoan udal finantzazioaren sistemearen bidez eta Udalkutxatik datozen sarreraren gorabeherak ikusita, beharrezkoa da zergak tasak eta prezio publikoak eguneratzea eta ez dago bestelako alternatibarik emoten diren zerbitzu publikoen eta gastuen gehikuntzeari aurre egin ahal izateko.